

San Telmo Museoa lau artisten grabatuekin osatutako karpeta sortu du eta Donostiako arte garaikideko sei galeriatan jarriko da salgai

“Urgullen magalean” erakusketarekin lotutako ekimen honetan parte hartu duten artistak Mikel Ruiz Pejenaute, Xare Alvarez Berakoetxea, Julen Agirre Egibar eta Ainize Txopitea dira. Bakoitzak grabatzeko teknika bat baliatu du bere lana sortzeko, eta La Taller-eko Maite Martínez de Arenazak eta Usoa Zumetak egin dute produkzioa. Donostiako sei galeriatan jarriko da karpeta salgai.

San Telmo Museoa ikusgai dagoen *Urgullen magalean* erakusketaren amaierako atalean grabatu taller batean aurki daitezkeen lan tresnak ikus ditzakegu. Horiek baliatuta, grabatu teknikak erakusten dira: serigrafia, kalkografia, xilografia eta litografia. Izan ere, erakusketa honetan, garrantzia eman nahi izan zaio antzinean irudiak kopuru handitan erreproduzitzeko sortutako modu honi, gaur egun artistek sorkuntzarako erabiltzen dutena.

Horregatik, erakusketa prestatzearekin batera, museoak lau artista gonbidatu zituen paisaia eta Donostia ardatzak oinarri hartuta lan egitera, bakoitzak teknika horietako bat erabiltza.

Artisten parte-hartzea ez da esku-hartze estatikoa izan. Artista bakoitzak paretan bat izan du erakusketaren azken areto horretan, eta bertan hainbat lan erakutsi du, sorkuntza prozesua aurrera zihoan heinean.

Esku-hartze horiei dagokienez, bi alderdi aipagarri daude; lehenengoa da artista bakoitza bere kezka formal eta plastikoetatik abiatu dela hormari heltzeko. Zentzu horretan, Xare Alvarez eskulturatik eta liburukiari eta erregistroari buruzko kezkatik abiatu da; Mikel R. Pejenaute artearen, diseinu grafikoaren eta logografiaren arteko elkargunetik; Julen Agirre marrazkigintzatik eta arkitekturarekiko artikulaziotik; eta Ainize Txopitea ikus-entzunezko praktikatik.

Bigarren alderdi azpimarragarria da karpetak egiteko, R. Pejenaute izan ezik, gainerako artistek ez zituztela teknika grafikoak ezagutzen. Eta Pejenauteri normalean erabiltzen ez duen teknika bat esleitu diogu, denak teknikaren ezezagutzatik abia zitezen saiaturik. Mikel Ruiz Pejenautek xilografia erabili du, Xare Alvarezek kalkografia, Ainize Txopiteak serigrafia eta Julen Agirrek litografia.

Artistek sortutako grabatu-matritzetatik abiatuta, edizio bat egin da ondoren: 25 karpeta egin dira saltzeko, 1/25etik 25/25era zenbakituta, eta dagozkion probak. Litografia, xilografia eta kalkografiaren kasuetan, lana La Taller galeria eta grabatu tailerrean burutu da, Maite Martínez de Arenazarekin. Serografiaren kasuan, Usoa Zumetarekin egin da produkzio lan artisau hori.

Lau estanpen sorta biltzen duten karpeta hauek salgai jarriko dira, 575 euroan, Donostiako sei arte garaikideko galeriatan, eta pozik agertu dira ekimenarekin galeria hauek: “Ekintza honek gure hurbileko artearen dibulgazio eta sustapen lan etengabea aintzatesten du, eta espero dugu denboran irautea; halaber, arrazoi ona da publiko berri batek bere garaikide diren artisten lanak eskuratu, ezagutu eta gozatu ahal izateko, arrazoizkoa den prezioan.”

Altxerri: Erregina Erregeordea, 2, 20003 Donostia, Gipuzkoa. Web: altxerri.com

Arteko Gallery: Iparragirre, 4, 20001 Donostia, Gipuzkoa . Web: artekogallery.com

Arteztu Gallery: Resurrección Maria Azkue 12, Donostia. Web: arteztu.com

Cibrián Gallery: Hernani, 21, 20004 Donostia, Gipuzkoa. Web: cibriangallery.com

Ekain Arte Lanak: Iñigo, 4, 20003 Donostia, Gipuzkoa. Web: ekainartelanak.com

Kur Art Gallery: Zurriola, 6, 20002 Donostia, Gipuzkoa. Web: kurgallery.com

Mikel Ruiz Pejenaute (Zumarraga, 1990)

Bilboko Arte Ederretako Fakultatean lizentziatua (UPV/EHU). 2014an, Artearen Ikerketa eta Sorkuntza masterra egin zuen Euskal fakultate berean, eta 2017an, Itziar Okarizek eta Jon Mikel Eubak Tabakaleran (Donostia) emandako lehen "artistentzako tailerrean" parte hartu zuen. Grafikaren arloan, CIEC Fundazioan (Galizia), Alfara Studion (Salamanca), Debako Arte Eskolan eta Artelekun trebatu da. 2018an, modu erregularrean eta autonomoan hasi zen lanean bere serigrafia-tailerrean, Zumarragan.

Erakusketa kolektiboa egin du Bilboko Windsor galerian, Koldo Mitxelena - Gipuzkoako Artista Berrien programaren barruan -, Bizkaiko Batzar Nagusien aretoan eta Grabatuaren Nazioarteko Azokan (FIG). 2018an bakarkako azken erakusketa egin zuen, "Tabako eta garajea ¿Bailas?" Izenburupean.

Hasiera batean, Pejenautek pintura eta teknika grafikoaren alorra jorratu zuen, baina urteen poderioz eskultura-prozeduretara hurbildu da. Joan-etorriko bide batean sartuta, bidimentsionaltasuna eta hirugarren dimentsioa sartzen dira, lehen ikusizko multzo batetik abiatuta - "Logomania" eta grafismorako nolabaiteko joera duten zenbait gene-marrazki-zeinu -, horietako batzuen itzulpen materiala eta eraldaketa formala bilatzen du; horrela, metatzeko eta mihiztatzeko mekanismoen bidez eta bilgarriaren ideiatik hurbil dauden bolumen-egiturekin, erretorika batera hurbiltzeko.

Xilografia

Xilografia zurezko xafla matrize gisa erabiltzen duen grabatu teknika da. Irudia gubia edo burilekin tailatuz lortzen da. Emaitezko erliebea arrabol batekin tintatzen da eta paperean inprimatzen da prentsa lau batek egiten duen presioaren bidez.

Mikel R. Pejenautek xilografiari heldu dio laser ebakia duten bi xafla zizelkatuz Ilustratorrekin sortutako artxibo batetik abiatuta. Plantxek bi irudi berdinetatik dituzte eta kolore ezberdinetan estantpatzen dira 300 g-ko Somerset Venvet White paperean.

Plantxa Bilbaoarten prozesatu da eta estantpak La Tallerren egin dira.



Xare Alvarez Berakoetxea (Donostia, 1990)

Arte Ederretan lizentziaduna UPV/EHUn eta École Nationale Supérieure des Beaux Arts-en (Paris). Berriki jasotako bekak eta sariak, besteak beste: INJUVE gazte sorkuntzarako laguntzak, Guggenheim Bilbao Museoaren EGINBERRI beka, TBK-CAC La Synagogue de Delmeko truke egoitza, edo Gipuzkoako Artista Berrien Programaren ohorezko aipamena.

Erakusketen artean aipagarri: Canon, Sala Amadís (Madril); Bi DosTwo, Azkuna Zentroa (Bilbo); Eginberri, Guggenheim Bilbao Museoa; Orsal, Bel Ordinaire (Pau); Guéoir, Atelier du CAC La Synagogue de Delme (Delme); eta 15/32, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia).

“Nire praktika eskulturaren esparruan garatzen da. Objektuen eta materialen bilketa etengabea da abiapuntua, eta testuingurutik kanpoko jabetze-prozesuen mende jartzen dut. Eraldaketa-nozioa funtsezkoa da eskulturetan inplikaturako prozeduretan, horiek baitira haien logika berezia, materiaren eta haren antolamenduaren arteko elkarreraginean oinarrituta. Testura beroz eta artisautzaz, azal zimurtsuz, pitzaduraz eta egitura ezegonkorrez osatutako hiztegia erabiltzen dut, bai eta geometrikoaren eta organikoaren artean fluktuatzen duten formen sintaxia ere, paisaiarekin, gorputzarekin eta etxeko espazioarekin dudan harremanetik eratorriak.”

Kalkografia

Kalkografia matrizea metalikoa duen teknika grafikoa da. Kobrea edo zinka punta edo burilen bidez eragiten da zuzenean, edo irudia azidoz grabatzen da. Hozkailuekin lan egiten bada, zer baliabide grafiko mota behar den kontuan hartuta, plantxa berniz, laka edo erretxinekin babesten da.

Grabatu ondoren, plantxako ebakiduretan tinta sartzen da eta kontu handiz garbitzen da tarlatana batekin. Paperean estanpatzen da, torkulu baten presioaren bidez.

Xare Alvarezek gofratu bat egin du (tintarik gabeko erliebea), kobrezko xaflan sakonera maila desberdinetako hozkaden bidez egin, eskuz egindako Eskulan paperekin sortutako konposizio batean, eta 300 g-ko Somerset Velvet White paper gainean muntatuta eta josita.

Plantxa eta estanpak La Tallerren egin dira.



Julen Agirre Egibar (Azpeitia, 1984)

Artista, ikertzailea eta EHUko Arte Ederren Fakultateko irudigintza departamentuko irakaslea da. 2017az geroztik Arte Ederretan doktorea da “Kezkagarri arraroa terminoaren eraketa, etxea eta hiria espazio bezala hartuta. Twin Peaks telesailetik, zenbait praktika artistiko garaikidetara” izeneko doktore tesiarekin.

Bere ikerketa arte garaikidearen kezken inguruan biltzen da, ibilbide horretan lanerako material ezberdinetatik igarotzen delarik. Praktika artistikoa nagusiki, marrazkiaren bueltan garatzen du, nahiz eta gero beste diziplina batzuetara gerturazten den. Bereziki, arkitektura eta eskulturaren arteko eremuan lan egitea interesatzen zaio.

Hainbat beka eta sari jaso ditu, Renoko Unibertsitateko Center for Basque Studies-en egonaldi artistikoa egiteko beka edo Euskal Zine Bilerako saria esaterako.


Azken urteetan erakusketa kolektibo zein bakarkakoetan parte hartu du, batzuk nabarmentzearen; Oskola parau, Punta Begoñako Galeriak (Getxo), CENTROA, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia), ZENTER, CBS (Reno), Riding to Amarillo, Space 4 Art (San Diego), CENTRALE, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (Bilbao), Differenza, Galleria Guidi (Bologna)

Litografia

Litografia hezean inprimatzeko prozedura bat da, eta matrizea harri bat da. Koipearen eta uraren arteko uxapenean oinarritzen da. Harria, arkatzez edo tinta koipetsuz marrazten da. Bere gainean hezetasuna aplikatzen da, marraztu gabeko eremuetan bakarrik mantentzen dena. Zati koipetsuak eta hezeak finkatzeko prozesatze kimikoaren ondoren, tintaztatzeari ekiten zaio. Matrizea tinta koipetsua duen arrabol batekin tindatzen da, marraztutako eremuetan bakarrik itsasten da, eta hezeguneetan uxatzen da.

Litografiarako prentsa espezifiko baten bidez transferitzen da tinta paperera.

Julen Agirreren proposamena aluminiozko xafla litografikoaren gainean egindako litografia da, 300 g-ko Somerset Velvet White paper gaineko arkatz koipetsuekin. Plantxak eta estanpak La Tallerren egin dira.



Ainize Txopitea (Donostia, 1977)

Diseinuan eta Komunikazioan lizentziaduna, London College of Communication Arteen Unibertsitatean, 2002. Arte Garaikideko museo, erakunde eta galerietan erakutsi du bere lana.

Bere erakusketen artean, Love always will be, Arteko Galeria (Donostia); The Time is Now, Menchu Gal aretoa (Irun); Memorias Plásticas Museo de la Universidad (Oviedo); AccionxM2, La Juan Gallery (Madril); We can Dream, La Plataforma (Bartzelona); Yo Mujer, Museo Vostell (Extremadura); Fractals in Nature, Galerie Humeur de Chien (Paris); Art Ruhr, Feria de Arte Contemporáneo Essen (Alemania); The only bush I trust is my own, Galería L/L Burlington, Vermont (EE.BB.).

Gaur egun, kultur kudeaketarekin eta erakusketa-komisariotzarekin txandakatzen du bere sormen-jarduera, bere aitaren ondare artistikoari buruz, Daniel Txopitea margolari zenari buruz. Lan horrekin batera, hitzaldiak, tailerrak, eta arte-katalogoen edizioa eta diseinua ere egiten ditu.

Natura, generoa, identitatea, kaosa, ordena, denbora, poesia... dira Ainize Txopiteak poesia bisualetan lotzen dituen unibertso kontzeptualak, formalismo poetikotik ihes egiten dutenak, collage teknika eta teknologia berriak erabiliz.

Serigrafia

Serigrafia edo pantailaren matrizea bastidore baten gainean tenkatutako nylonezko oihal bat da. Jatorrian, zeta, sare bezala erabili zen, eta hortik dator bere izena: sericum (zeta, latinez) graphe (idatzi, grezieraz).



ludia egiteko, sare-irazkia bernizekin obturatzen da zuzenean edo emulsio fotosentikorrekin. Tintak buxatu ez diren eremuak zeharkatzen ditu.

Pantaila bisagrekin edo bernoekin finkatzen da mahai batera, eta papera pantailaren azpian jartzen da. Tinta sarearen bidez pasarazten da kautxuzko edo latexezko arraspaz egindako eskuzko presioaren bidez.

Ainize Txopiteak koloretako serigrafia egin du 300 g-ko Somerset Velvet White paperaren gainean, Usua Zumeta irakasle estanpatzailearen laguntzarekin.

El Museo San Telmo crea una carpeta con grabados de cuatro artistas que se pondrá a la venta en seis galerías de arte contemporáneo de Donostia

Los/as artistas que han participado en esta iniciativa relacionada con la exposición "Al abrigo de Urgull" son Mikel Ruiz Pejenaute, Xare Alvarez Berakoetxea, Julen Agirre Egibar y Ainize Txopitea, que han trabajado con diferentes técnicas de grabado. La producción ha corrido a cargo de Maite Martínez de Arenaza, de La Taller, y Usoa Zumeta. La carpeta se pondrá a la venta en seis galerías donostiarras.

En el apartado final de la exposición *Al abrigo de Urgull*, en el Museo San Telmo, podemos ver las herramientas de trabajo que se pueden encontrar en un taller de grabado. Con ellas se muestran las diferentes técnicas que se utilizan para grabar: serigrafía, calcografía, xilografía y litografía. En esta exposición se ha querido así dar importancia a esta forma de trabajo surgida en su origen para reproducir imágenes de forma masiva y que hoy en día los artistas utilizan para la creación.

Por ello, mientras se preparaba la exposición, el museo invitó a cuatro artistas a trabajar sobre la base de los ejes del paisaje y Donostia, cada cual utilizando una de estas técnicas.

La participación de los artistas no ha sido una intervención estática. Cada artista ha tenido una pared en la última sala de la exposición, en la que ha expuesto varios trabajos a medida que avanzaba en el proceso de creación. Respecto a estas intervenciones hay dos aspectos destacables; el primero es que cada artista ha partido desde sus preocupaciones formales y plásticas para el abordaje de la pared. En este sentido, Xare Alvarez ha partido de la escultura y su preocupación por el volumen y el registro; Mikel R. Pejenaute desde la intersección entre el arte, el diseño gráfico y la logografía; Julen Agirre desde el dibujo y su articulación con la arquitectura; y Ainize Txopitea desde su práctica audiovisual.

El segundo aspecto destacable es que, para la realización de las carpetas, salvo R. Pejenaute, el resto de artistas no tenía familiaridad con las técnicas gráficas. Y a Pejenaute le hemos adjudicado una técnica en la que habitualmente no trabaja, procurando que el punto de partida fuera en todos los casos un extrañamiento técnico.

Mikel Ruiz Pejenaute ha utilizado la xilografía, Xare Álvarez la calcografía, Ainize Txopitea la serigrafía y Julen Agirre la litografía.

A partir de las matrices de grabados creadas por los artistas, se ha realizado una edición posterior con 25 carpetas para la venta numeradas de 1/25 a 25/25 y las correspondientes pruebas. En los casos de litografía, xilografía y calcografía, el trabajo se ha llevado a cabo en el taller de grabado y galería La Taller, con Maite Martínez de Arenaza. En el caso de la serigrafía, esta producción artesanal se ha realizado con Usoa Zumeta.

Estas carpetas con las cuatro estampas se pondrán a la venta, a 575 euros, en seis galerías de arte contemporáneo de San Sebastián, que valoran la iniciativa muy positivamente: “Esta acción supone un reconocimiento de nuestra continuada labor de divulgación y promoción del arte cercano que esperamos que se mantenga en el tiempo; es también un buen motivo para que un nuevo público pueda y quiera acceder, conocer y disfrutar de sus artistas coetáneos en un precio razonablemente económico.”

Altxerri: Reina Regente, 2, 20003 Donostia, Gipuzkoa. Web: altxerri.com

Arteko Gallery: Iparragirre, 4, 20001 Donostia, Gipuzkoa . Web: artekogallery.com

Arteztu Gallery: Resurrección Maria de Azkue 12, Donostia. Web: arteztu.com

Cibrián Gallery: Hernani, 21, 20004 Donostia, Gipuzkoa. Web: cibriangallery.com

Ekain Arte Lanak: Iñigo, 4, 20003 Donostia, Gipuzkoa. Web: ekainartelanak.com

Kur Art Gallery: Zurriola, 6, 20002 Donostia, Gipuzkoa. Web: kurgallery.com

Mikel Ruiz Pejenaute (Zumarraga, 1990)

Licenciado por la Facultad de Bellas Artes de Bilbao (UPV/EHU). En 2014, realiza en la misma facultad Vasca, el máster de Investigación y Creación en Arte y en el 2017 participa en el primer “Taller para artistas” impartido por Itziar Okariz y Jon Mikel Euba en Tabakalera (Donostia).

En el campo de la gráfica se ha formado en Fundación CIEC (Galicia), Alfara Studio (Salamanca), la Escuela de Artes de Deba y en Arteleku. En 2018 comienza a trabajar de manera regular y autónoma en su propio taller de serigrafía en Zumarraga.

Ha expuesto de forma colectiva en la galería Windsor de Bilbao, en Koldo Mitxelena – dentro del programa de Artistas Noveles de Gipuzkoa– , la sala de Juntas Generales de Bizkaia y en la Feria Internacional de Grabado (FIG). En el 2018 realiza su última exposición individual titulada “Tabako eta garajea ¿Bailas?”.

Inicialmente, Pejenaute se centró en el ámbito de la pintura y las técnicas gráficas pero con los años se ha ido acercando a los procedimientos escultóricos. Sumergido en un camino de ida y vuelta entra la bidimensionalidad y la tercera dimensión, a partir de un primer conjunto visual –una serie de imágenes-dibujos-signos con cierta tendencia hacia la “Logomanía” y el grafismo– , busca la traducción material y la transformación formal de algunos de ellos; para así, a través de mecanismos de acumulación y ensamblaje y con estructuras de volumen cercanas a la idea de envoltorio, acercarse a una retórica de bulto que reivindica su alzamiento.

Xilografía

La xilografía es una técnica de grabado que utiliza la lámina de madera como matriz. La imagen se obtiene tallando con gubias o buriles. El relieve resultante se tiñe con un rodillo y se imprime en papel mediante la presión ejercida por una prensa plana.

Mikel R. Pejenaute ha abordado la xilografía tallando dos láminas con corte láser a partir de un archivo creado con Ilustator. Las planchas tienen dos figuras iguales y se estampan en diferentes colores en papel Somerset Venvet White de 300 gr.

La plancha se ha procesado en Bilbaoarte y las estampas se han realizado en La Taller.



Xare Alvarez Berakoetxea (San Sebastián, 1990)

Licenciada en Bellas artes por la UPV/EHU y la École Nationale Supérieure des Beaux Arts (París). Recientemente ha recibido becas y premios como las Ayudas para la creación joven INJUVE, la beca EGINBERRI del Museo Guggenheim Bilbao, la residencia de intercambio TBK-CAC La Synagogue de Delme o la mención de honor del Programa de Artistas noveles de Gipuzkoa.

Entre sus exposiciones destacan Canon, Sala Amadís (Madrid), Bi DosTwo, Azkuna Zentroa (Bilbao), Eginberri, Museo Guggenheim Bilbao, Orsal, Bel Ordinaire (Pau,) Guéoir, Atelier del CAC La Synagogue de Delme (Delme) y 15/32, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia).

“Mi práctica se desarrolla en el ámbito de la escultura. Parte de un constante ejercicio de recolección de objetos y materiales, que someto a procesos de apropiación descontextualización. La noción de transformación se vuelve esencial en los procedimientos implicados en las esculturas,

que constituyen su lógica particular sobre la base de una interacción entre la materia y su disposición. Empleo un vocabulario compuesto de texturas cálidas y artesanales, superficies rugosas, fisuras y estructuras inestables, y una sintaxis de formas que fluctúan entre lo geométrico y lo orgánico y que derivan de mi relación con el paisaje, el cuerpo y el espacio doméstico.”



Calcografía

La Calcografía es la técnica gráfica cuya matriz es metálica. El cobre o el zinc se inciden directamente mediante puntas o buriles, o se graba la imagen con ácido.

Si se trabaja con mordientes, en función de qué tipo de recurso gráfico se requiere se protege la plancha con barnices, lacas o resinas.

Una vez grabada, se introduce la tinta en las incisiones de la plancha y se limpia cuidadosamente con una tarlatana. Se estampa en papel mediante la presión de un tórculo.

Xare Alvarez presenta un gofrado (relieve sin tinta) realizado mediante mordidas a diferentes niveles de profundidad en plancha de cobre, sobre una composición de papeles hechos a mano Eskulan cosidos y montados sobre papel Somerset Velvet White de 300 grs.

Tanto la plancha como las estampas se han realizado en La Taller.

Julen Agirre Egibar (Azpeitia, 1984)

Es artista, investigador y profesor del departamento de dibujo de la Facultad de Bellas Artes de la UPV. Desde 2017 es doctor en Bellas Artes, con la tesis "Kezkagarri arraroa terminoaren eraketa, etxea eta hiria espazio bezala hartuta. Twin Peaks telesailetik, zenbait praktika artistiko garaikidetak".

Su investigación gira en torno a las inquietudes del arte contemporáneo, recorrido en el que transcurre por diferentes materiales de trabajo. La práctica artística la desarrolla principalmente en torno al dibujo, aunque también se acerca a otras disciplinas. En particular, le interesa trabajar en el ámbito entre la arquitectura y la escultura.

Ha recibido varias becas y premios, como la beca para la estancia artística en el Center for Basque Studies de la Universidad de Reno o el premio de la Euskal Zine bilera.

En los últimos años ha participado tanto en exposiciones colectivas como individuales, entre ellas: Oskola Parau, Galerías de Punta Begoña (Getxo), CENTROA, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia), ZENTER, CBS (Reno), Riding to Amarillo, Space 4 Art (San Diego), CENTRALE, Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro (Bilbao), Differenza, Gallertia Guidi (Bologna).


Litografía

La litografía es un procedimiento de impresión en húmedo cuya matriz es una piedra. Se basa en la repelencia entre la grasa y el agua. La piedra se dibuja con lápices o tintas grasas. Sobre ella se aplica humedad, que solo permanece en las zonas no dibujadas. Tras un procesado químico para fijar las partes grasas y las húmedas, se procede al entintado. La matriz se entinta con un rodillo con tinta grasa, que se adhiere solamente en las zonas dibujadas, siendo repelida en las zonas húmedas.

La tinta se transfiere al papel mediante una prensa específica para litografía.

La propuesta de Julen Agirre es una litografía hecha sobre plancha litográfica de aluminio con lápices grasos sobre papel Somerset Velvet White de 300gr.

Tanto las planchas como las estampas se han realizado en La Taller.



Ainize Txopitea (Donostia -San Sebastián, 1977)

Licenciada con un BA en Diseño y Comunicación en la Universidad de las Artes London College of Communication, 2002. Su trabajo ha sido mostrado en Museos, Instituciones y Galerías de Arte Contemporáneo.

Entre sus exposiciones destacan Love always will be, Galería Arteko (Donostia, The Time is Now, Sala Menchu Gal (Irun), Memorias Plásticas Museo de la Universidad (Oviedo), AccionxM2, La Juan Gallery (Madrid), We can Dream, La Plataforma (Barcelona), Yo Mujer, Museo Vostell (Extremadura), Fractals in Nature, Galerie Humeur de Chien (Paris), Art Ruhr Feria de Arte Contemporáneo Essen (Alemania), The only bush I trust is my own, Galería L/L Burlington, Vermont (EE.UU)

Actualmente alterna su actividad creativa, con la gestión cultural y el comisariado de exposiciones sobre el legado artístico de su padre, el fallecido pintor Daniel Txopitea, labor que compagina con conferencias, talleres, la edición y el diseño de catálogos de arte.

Naturaleza, género, identidad, caos, orden, tiempo, poesía...son los universos conceptuales que Ainize Txopitea enlaza inextricablemente en poesías visuales, que huyen del formalismo poético, mediante el uso de la técnica del collage y las nueva tecnologías.

Serigrafía

La matriz de la serigrafía o pantalla es una tela de nylon tensada sobre un bastidor. En origen se utilizó la seda como malla, y de ahí proviene su nombre: sericum (seda, en latín) graphe (escribir, en griego).

La imagen se construye obturando la urdimbre de la malla con barnices de forma directa o con emulsiones fotosensibles. La tinta atraviesa las zonas que no han sido obturadas.

La pantalla se fija con bisagras o pernos a una mesa y el papel se coloca bajo la pantalla. Se hace pasar la tinta a través de la malla mediante la presión manual efectuada con una rasqueta de caucho o látex.

Ainize Txopitea ha realizado una serigrafía en colores asistida por la maestra estampadora Usoa Zumeta sobre papel Somerset Velvet White de 300 gr.

